



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

**Administrazio klausula
partikularren eta xehetasun
teknikoen plegua, KOKAPEN
ZERBITZUA kontratatzeko.**

Aurkibidea

01. Kontratuaren xedea	3
02. Betearazpen epea.....	3
03. Lizitazio aurrekontua	3
04. Ordaintzeko era.....	4
05. Prezioen berrikuspena.....	5
06. Bermeak.....	5
07. Kontratua betearaztea.....	5
08. Betearazpenerako baldintza bereziak.....	5
09. Esleipendunaren betebeharrak.....	7
10. Bermearen onarpena eta epea.....	10
11. Betebeharrak ez betetzea eta zigorrak.....	10
12. Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.....	12
13. Kontratuzko organoa.....	12
14. Esleitzeko prozedura.....	12
15. Esleitzeko irizpideak.....	12
16. Esleitzeko irizpideak baloratzea.....	12
17. Kontratatzeko beharrezko betekizunak.....	14
18. Proposamenak aurkeztea.....	15
19. Proposamenak irekitzea eta kontratazio-mahaiaren jarduera.....	17
20. Esleipena.....	18
21 Formalizazioa.....	19
22. Kontratua aldatzea.....	20
23. Izaera, araubide juridikoa eta eskumena duen jurisdikzioa.....	20
1. eranskina. Zehaztasun teknikoak.....	22
2. eranskina. Eskaintza ekonomikoaren eredia.....	29



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

3. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia	30
---	-----------



01. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren helburua da Juan Crisóstomo de Arriaga-Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioaren (aurrerantzean BOS) kokapen zerbitzua ematea jarduera edo kontzertu egunetan, kontratu izaera duen txostenari erantsitako espezifikazio teknikoekin bat etorriz.

BOSen kontzertuak/jarduerak bere egoitzan egin ohi dira. (Palacio Euskalduna Jauregia, Abandoibarra etorbidea 4, 48011 Bilbao). Hemendik aurrera, PEJ deituko zaio Palacio Euskalduna Jauregiari.

CPV-08 kodea: 74831000-3.

Bete beharreko beharrianak: kontratazio honen bitartez, kokapen zerbitzu bat kontratatu nahi da, BOSen kontzertu-jardueretarako, izan ere, BOSek ez du horretarako berezko baliabiderik.

02. BETEARAZPEN EPEA.

Kontratuak **bi urteko** iraupena izango du. **(2)** Aurreikuspenen arabera, 2017ko abenduaren 21ean hasiko da edo, bestela, kontratua formalizatzen denean, data horren ondoren baldin bada.

Luzapena: Kontratua berariaz luzatu ahalko da, hori bukatu aurretik bi aldeak ados daudelarik. Edozein kasutan, luzapena edo luzapenak, bakarrik edo batera, ezingo dira 24 hilabetetik gorakoak izan.

Garrantzitsua: Ez da luzapenik sinatuko, kontratua esleitzeko unean aplikagarria zen hitzarmen edo itunean aurreikusitako baldintzei dagokienez, kontratuari atxikitako langileen lan-baldintzak alde bakarraren adostasunez murriztu dituzten erakundeekin.

Edozein kasu dela medio, kontratua bide arrunt edo ez arruntetik hautsiko balitz, zerbitzuak jarraituko duela bermatzeko helburuarekin, BOSeko kontratazio batzordeak kontratuaren derrigorrezko luzapena adostu ahal izango du. Luzapenak kontratu berria esleitu arte iraungo du, baina inoiz ez sei hilabete baino gehiago.

03. LIZITAZIO AURREKONTUA.



A) KONTRATUAREN KALKULATUTAKO BALIOA. (BEZ gabe)

Publizitate eta esleipen-prozedura aplikagarriaren ondorioetarako, ehun eta laurogeita hamar mila berrehun eta hirurogeita bederatzi euro eta hogeita hamaika zentimokoa **(190.269,31 €)** da kontratuaren kalkulaturako balioa.

B) URTEKO GASTUAREN KALKULATUTAKO GEHIENEZKO AURREKONTUA. (BEZ gabe).

Jarraian, kontratuaren urteroko bakoitzaren gastuaren kalkulaturako gehienezko aurrekontua jasotzen da:

Primer año	39.639,44 €
Segundo año	39.639,44 €
Total	79.278,88 €

Aipaturako aurrekontua eskaturako zerbitzu-orduen kopuruaren arabera kalkulatu da, hau da, **urteko 2.564 ordu** gutxi gorabehera.

Kasu guztietan, GUZTIZKO zenbateko hori izango da eskaintzen gehienezko zenbatekoaren oinarria, eskaintzak alderatzeko prozesuan; zenbateko hori gainditzen dituzten eskaintzak modu automatikoan baztertuko dira, baita gehienezko aleko prezioa gainditzen dituzten eskaintzak ere.

C) ESKAINTZAK EGITEKO LIZITAZIO-OINARRIA. (BEZ gabe).

Lizitatuzaileek eskaintzak egiteko kontuan izango duten gehienezko lizitazio-oinarria honakoa izango da:

Kontzeptua	Prezio unitarioa
Aretozaina, orduko (lehenengo urtean)	15,46 €
Aretozaina, orduko (bigarren urtean)	15,46 €

Prezio hori edozein ordutarako izango da (gauekoa, jaiegunekoa, etab.), eta lizitatuzaileek merkeago jarrita hobe dezakete.

Luzapena egonez gero, luzapen eperako prezioa esleipendunak azken urterako (2.a) eskaintako aleko prezioa izango da.



Kontratuan aurreikusitako aleko prezioen arabera egingo zaio ordainketa kontratistari.

Kontratistari ordaindutako prezioa aldagarria izango da, benetan emandako zerbitzu-orduen kopuruaren arabera.

04. ORDAINTZEKO ERA.

Kontratuaren prezioa hilero ordainduko da, dagokion faktura aurkeztu eta onartu ondoren. Fakturan, kontratistak hilabete horri dagokion kopurua zehaztuko du, eta aurreikusitako prozedurari jarraituz eskatu eta prestatu beharko da.

Ondorio horietarako, enpresa kontratatzaileak hilabeteko faktura igorri beharko du hurrengo hilabeteko lehen hamabost egun naturaletan.

05. PREZIOEN BERRIKUSPENA.

Kontratu honetan ez da beharrezkoa prezioak berrikustea.

Justifikazioa: Kontratuaren kostuen garapena eskainitako prezioaren barruan dago; beraz, baztertu egiten da bestelako faktore zuzentzaileak sartzea, prezioen berrikuspenaren teknikaren bidez.

06. BERMEAK.

Kontratuaren esleipendunak, hartutako obligazioak beteko dituela bermatze aldera, behin betiko bermea osatu beharko du derrigorrez, esleipenaren zenbatekoaren %5i dagokion zenbatekoan, BEZ sartu gabe.

Aipatutako bermea eratzeko epea hamabost egun naturalekoa izango da, kontratuaren esleipenaren berri eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta prezioaren erretentzio moduan edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB) onartzen duen azaroaren 24ko 3/2011 Errege Dekretu Araztailearen 96. artikuluan ezarritako edozein modutan eratu ahal izango da.

Bermeen itzulketa (osoak edo partzialak, hala beharko balitz), bermearen epea amaitu ostean egingo da,



esleipendunak bere kontratu-betebehar guztiak bete ostean. Eta hori, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 97. artikulua ezarritakoaren arabera.

07. KONTRATUA BETEARAZTEA.

Kontratuaren betearazpena kontratistaren arrisku eta galdu-gordean egingo da.

Kontratua plegu honetan biltzen diren klausulen arabera beteko da, eta hala behar balitz, txostenean bildu diren xehetasun teknikoen arabera. Betiere, BOSek interpretatu ditzan kontratistari ematen dizkion jarraibideekin bat etorritz.

08. BETEARAZPENEN BALDINTZA BEREZIAK.

Gizarte, lan eta ingurumen araudia betetzea: Kontratatzaileak, kontratua betearaztean, gizarte, lan eta ingurumen alorrean aplikagarriak diren obligazioak beteko ditu; kontuan hartuko dira Europar Batasunaren zuzenbidean, zuzenbide nazionalen eta hitzarmen kolektiboetan ezarritako obligazioak, baita ingurumen, gizarte eta lan alorrean Estatu lotzen duten nazioarteko zuzenbideko xedapenak ere. Era berean, eskaintza egiteko orduan, araudi hori aplikatzen duela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena egingo du, erantsitako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN arabera. (3. eranskina)

Hitzarmen kolektiboa adierazteko obligazioa: Esleipendunak izatekotan, lizitatzailerik aplikagarria den hitzarmena jakinaraziko diete kontratuaren xedea den jardura gauzatzen duten langileei; era berean, kontratua esleitu ondoren langile horiei aplikatu zaizkien lan-baldintzei buruzko behar besteko informazioa eman beharko du. Halaber, eskaintza egiteko orduan, hitzarmen kolektiboa adierazteko eta lan-baldintzei buruzko informazioa emateko obligazioaren erantzukizunpeko adierazpena egingo da (esleipenduna izatekotan), erantsitako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN arabera (3. eranskina).

Kontratu honen xedea den jardura gauzatzen duten langileei aplikagarria zaien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipenaren ebazpenean gehituko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Zentzu horretan, eskaintza aurkezteak berekin dakar gardentasun instituzionala ematea lizitazio, esleipen eta betearazpen prozesuetatik eratorritako datu guztiei, aipatutako prozesuak amaitu arte.



Hitzarmenean jasotako ordainsaria ordaintzeko obligazioa: Esleipendun izatekotan, kontratua betearaziko duten langileei indarrean dagoen eta kontratu hau arautzen duen azken hitzarmen kolektiboak (enpresakoa, sektorekoa edo lurraldekoa, dagokionaren arabera) ezarritako baldintzak aplikatzeko obligazioa izango dute lizitatzailleek, betearazpeneko baldintza berezi gisa; hori ez da eragozpena izango hitzarmen horretan xedatutakoaren gaineko hobekuntzak egiteko. Hain zuzen ere, aplikagarria den hitzarmen kolektiboan jasotako ordainsaria ordaindu beharko du kontratistak, langile bakoitzari dagokion sailkapen profesionalaren arabera, eta ordainsaria ezingo da hori baino txikiagoa izan. Era berean, esleipendun izatekotan, hitzarmenean jasotako ordainsaria ordaintzeko konpromisoa hartzen du enpresak, erantsitako ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENAREN arabera. (3. eranskina)

Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko obligazioa, legearen arabera: Esleipendun izatekotan, lizitatzailleek betearazpeneko baldintza berezizat hartuko dute beren gain enpresako plantillako langileen %2, gutxienez, desgaitasuna duten pertsonak izatea, baldin eta enpresak 50 langile edo gehiago baditu, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta horien gizarte-inklusiari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 42. artikularekin bat etorritik, edo, bestela, apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan ezarritako ordezkoko neurriak hartzea. Era berean, konpromisoa hartzen du aipatutako obligazioa betetzen duela egiaztatzeko BOSen aurrean, azken horrek hala eskatzen duenean, kontratua indarrean dagoen edozein unetan edo, kasu guztietan, azken faktura igorri baino lehen. Hori guztia, erantsitako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN arabera. (3. eranskina)

Indarrean dagoen hizkuntza araubidetik eratorritako obligazioak betetzea: Kontratu honek hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea du oinarri, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritakoren eta Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak eta hori garatzen duten araudiek araututakoaren arabera.

Kontratuaren xede den zerbitzua emateak herritarrekiko harreman zuzena dakarrenean, honako baldintzak beteko dira:

- a) Enpresa esleipendunak zerbitzua eman beharko du, zerbitzua EAEko bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko herritarrak duen eskubidea errespetatuta.
- b) Erabilera publikoko inprimaki, idazki eta jakinarazpenak (halakorik baldin badago), euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko ditu enpresa esleipendunak.



- c) BOSen kontratu baten enpresa esleipendunek euskara erabili beharko dute, kontratuaren xede den jarduerari lotutako jendaurreko parte-hartze guztietan (halakorik baldin badago).

Oinarrizko lan-eskubideak errespetatu eta LANEren oinarrizko hitzarmenak betetzeko obligazioa: Esleipendun izatekotan, lizitatzailleek beren gain hartuko dute, betearazpeneko baldintza berezi gisa, ekoizpen-kate osoan oinarrizko lan-eskubideak errespetatu eta Laneko Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenak betetzeko obligazioa, bereziki, honako hauek:

- 29. eta 105. hitzarmenak, lan behartua desagerrarazteari buruzkoak.
- 87. eta 98. hitzarmenak, sindikatu, elkarte eta negoziazio kolektiborako askatasunari buruzkoak.
- 100. hitzarmena, balio bereko lanaren truke, gizonezko langileen eta emakumezko langileen arteko ordainsarien berdintasunari buruzkoa.
- 111. hitzarmena, arraza, kolorea, sexua, erlijioa, iritzi publikoa, jaioterria edo gizarte-jatorria direla-eta, enplegua eskuratzeko eta lan-baldintzetan diskriminaziorik ez jasotzeari buruzkoa.
- 138. hitzarmena, haurren esplotazioa eta lana abolitzeari buruzkoa.
- 182. hitzarmena, haur-lana debekatzeari eta hori desagerrarazteko berehalako ekintzari buruzkoa.

Hori guztia, erantsitako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN arabera. (3. eranskina)

09. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

Orokorrak: esleipendunak ordaindu beharko ditu kontratatutako zerbitzua osorik betetzeko egin beharreko gastu guztiak: kontratua prestatzeko eta formalizatzeko izapideak, materialak eta instalazioak, bitarteko tresnak, eskulana, Gizarte Segurantza, zergak, mota guztietako ardurak eta aseguruak eta esleipena duen enpresari dagozkion edozein motatako beste zama eta betebeharrak guztiak (esleipena egiten denean horiek guztiak onartzen baititu); baita, kontratutik edo lizitazioan parte hartzetik eratorritako beste guztiak ere.

Esleipendunari dagokio kontratua betearazteko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia ofizialak zein partikularrak eskuratzeko.



Esleipena duen enpresak diru gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe eskaini beharko ditu kontratua egoki garatu eta betetzeko beharrezko zerbitzuak: laneko bileretara edo informazio bileretara joatea, etab. Betebehar hori bermepeko sasoia amaitu arte mantenduko da.

Ardurak eta kalteak: esleipenduna izango da egiten dituen lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazio eta zerbitzuen arduraduna. Era berean, kontratua betetzeari dagozkion ekintzak egiterakoan sortzen diren kalteen erantzule ere izango da, SPKLTBren 214. artikulua dionarekin bat etorriz.

Bermearen indarraldia amaitu arte, esleipena duen enpresaren erantzukizuna izango dira kontratatutako lanak eta hauetan egon daitezkeen akatsak. Gainera, BOSeko arduradunek lanak egiten egon diren artean ikuskatzea edo frogak, balorazioak zein zatikako egiaztagiria onartzea ez da izango salbueslea, eta ez dio esleipena duen enpresari inolako eskubiderik emango.

Lan arlokoak: Esleipena duen enpresak kontratu hau betearazteko garatu beharreko jarduera guztiak egiteko langile nahikoa eta trebatuak izan beharko ditu. Esleipena duen enpresak erabakiko du zeintzuk diren bere langileen beharrezkoak, eta horrek ez du aurreko paragrafoan esandakoa aldatuko. Edozein kasutan ere, behar den moduan koordinatuta, eskaini beharreko zerbitzuak epeen barruan eta ondo eskaintzeko gai dela frogatzen duen lantaldea izan beharko du.

Esleipena duen enpresak bere lan betebeharrak betetzea ez da BOSen ardura zuzena izango; ezta elkartzunezko ardura edo zeharkakoa ere. Era berean, ez dira haren ardura izango, kontratuak irauten duen bitartean edo kontratua amaitu ondoren, izan daitezkeen lan-kontratuen amaierekin. Esleipena duen enpresak hartu beharko ditu bere gain hauetatik eratorri dakizkion ondorio juridikoak zein lan ondorioak; bai kontratu honek irauten duen artean, bai kontratua amaitu eta gero. BOSek ez du izango inolako lan arloko harreman juridikorik, zibilik ez administratiborik zerbitzuak eskaintzeko esleipena duen enpresako langileekin.

Laneko arriskuen prebentzioa: Edozein kasutan, lan arriskuen prebentzioari dagokionez, indarrean dagoen legeak esaten dituen betebehar guztiak bete behar dira. Horretarako, kontratuak ezartzen duen zerbitzua eskaintzeko garatzen diren jardueretan lan arriskuen prebentzioetarako indarrean dagoen legedia egoki erabiltzeko legeak ezartzen dituen tresnak garatuko dira. Esleipena duen enpresa izango da esandako betebeharrak betetzearen arduradun bakarra. Hori dela eta, bera izango da betebehar hauek ez betetzearen



edo txarto betetzearen ondorioz gertatu daitezkeen arduradun. Enpresa esleipenduna derrigortuta dago PEJren eta/edo zerbitzua ematen den beste lekuen LAPerako arauak betetzera.

Zigorak lan-harremanen eta LAPen alorrean: Esleipendunak, kontratua betearazteari lotutako ekintzei dagokienez, lan-harremanen (banakakoak edo kolektiboak) edo LAPen alorrean ezartzen dioten edozein zigorri buruzko informazioa eman beharko dio BOSi aldian-aldian, baita horren kontra aurkeztutako errekurtsoei eta horien ondoriozko ebazpenei buruzko informazioa ere.

Datu pertsonalak: Esleipena duen enpresak, hala behar duelako, kontratua betetzeko beharrezkoak zaizkiolako, automatizatutako izaera pertsonaleko datuak erabili beharko balitu, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dioenari eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeari erreparatuta egingo du; izaera pertsonaleko datuen babesari eta ezarpen horiek garatzen dituzten arauak biltzen baitituzte.

Esleipena duen enpresak ezingo ditu ezarri edo erabili kontratua dela eta automatizatuta dituen izaera pertsonaleko datuak kontratuan agertzen ez diren helburuetarako.

Kontratuak eskatzen duen prestazioa bete ondoren, erabilitako izaera pertsonaleko datuak BOSi eman beharko zaizkio. Esleipena duen enpresak dituenak desegino ditu, ez baldin badu BOSen idatzizko baimenik lortzen, etorri daitezkeen zerbitzu berriak egiteko. Kasu horretan, bost urtean gorde ahal izango ditu datuak, dagozkien segurtasun baldintzekin.

Sekretu profesionala eta isilpekotasuna: Enpresa esleipendunak derrigorrez gorde beharko du sekretu profesionala, kontratuaren xede den lana egiteko orduan BOSek emandako informazioari eta dokumentazioari dagokienez.

Ondorioz, debekatuta dago euskarri magnetikoetan zein ohikoetan jasota dagoen BOSen isilpeko informazioa erreproduzitu, banatu, komunikatu, eraldatu, helarazi edo beste edozein manipulazio egitea, inongo pertsona fisiko edo juridikori, dohainik edo diru trukean.

Obligazio hori kontratuaren xede diren jarduerak irauten duten bitartean eta jarduerak amaitu ostean egongo da indarrean, informazio hori jabari publikokoa izatera heldu arte edo, legezko beste arrazoi batzuk direla-eta, isilpekotasuna amaitu arte.



Enpresa esleipenduna arduratuko da bere zerbitzuean dauden langileek eta bertako kolaboratzaile edo azpikontratatu gisa ari diren pertsonen zein erakundeek isilpekotasun arloko obligazioak bete ditzaten.

Enpresa esleipendunak soilik kasu batean emango du isilpeko informazioa: kontratatutako jarduera eta zerbitzuak garatzeko orduan, langileek informazio hori behar dutenean.

Enpresa esleipendunak ez du BOSen isilpeko informazioa erabiliko bere helburuetarako, helburu pribatuetarako edo beste edozein helburutarako. Isiltasun profesionalaren betebeharra apurtzen badu, esleipena duen enpresak kalte ordainak ordaindu beharko ditu, BOSi eta kaltetutako pertsonen egindako kalte-galerengatik.

10. BERMEAREN ONARPENA ETA EPEA.

Obrak bukatu eta, gehienez, hogeita hamar eguneko epean, kontratuaren helburuak betetzeko egintza formala eta positiboa egingo da.

Era berean, hirurogei eguneko epea finkatzen da, onarpen formala egiten den egunetik zenbatzen hasita, SPKLTBk ezarritako ondorioen berme gisa. Bermearen epe honetan, enpresa kontratista izango da egindako lanetan edo eskainitako zerbitzuetan agertu daitezkeen hutsen edo akatsen erantzulea. Bermearen indarraldia amaitu arte, esleipena duen enpresaren erantzukizuna izango dira kontratatutako lanak eta hauetan egon daitezkeen akatsak. Gainera, BOSeko arduradunek lanak egiten egon diren artean ikuskatzea edo frogak, balorazioak zein zatikako egiaztagirak onartzea ez da izango salbueslea, eta ez dio esleipena duen enpresari inolako eskubiderik emango.

Aipatutako epea BOSek arazorik jarri gabe igarotzen bada, esleipendunaren ardura indarrik gabe geldituko da.

11. BETEBEHARRAK EZ BETETZEA ETA ZIGORRAK.

Kontratuari dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu, esleipena duen enpresari zigor ekonomikoak ezarriko zaizkio aurretiaz entzunaldia eginda.

Betebeharren ez betetzeak oso larriak, larriak eta arinak izango dira euren larritasunaren, zerbitzuan izan duten eraginaren eta BOSi zein hirugarren pertsonen eragin dizkieten kalteen arabera.



Esleipena duen enpresari zigorra ezarriko zaio, kontratuak ezarritako baldintzetako bat edo gehiago betetzen ez baditu:

A) Arau-hauste oso larriak:

- Kontratututako prestazioak etetea arrazoi handirik edo BOSek onartutako justifikaziorik gabe.
- Kontratua aldi baterako edo behin betiko bertan behera uztea, aurretik baimenik eman gabe.
- Esleipena duen enpresari eskatu ahal zaizkion betebeharren ez betetze larria edo errepikatua.
- Beteazpeneko baldintza bereziak ez betetzea, BOSen iritziz eta modu arrazoituan ez betetzea arina edo larria izan ezean.
- Arrazagatiko, sexuagatiko, erlijioagatiko, hizkuntzagatiko edo iritziagatiko bazterketari lotutako edozein ekintza.
- Egin beharreko lanen beteazpenean edota zerbitzuetan atzerapenak izatea, horrek oso kalte larria eragingo balio BOSen irudiar.
- Hiru arau-hauste larri egitea.

B) Arau-hauste larriak:

- BOSek emandako jarraibideak edo aginduak eta kontratuan dauden betebeharrak ez betetzea edo ez egitea izango duten eraginagatik oso larriak izango ez badira.
- Kontratuan agertzen diren lanen atzerapena.
- Arau-hauste arin bi egitea.

C) Arau-hauste arinak:

- Esleipena duen enpresari eskatu ahal zaizkion betebeharretan huts egitea edo arrazoirik gabeko arduragabekeria izatea.

Zigorrak: Enpresa esleipendunak arauak hausten baditu, honako zigorrak eta ondoren azaldutako zenbatekoak ezarri ahal izango dira:

- 1) Zigorrak arau-hauste oso larriengatik: hilabeteko fakturaren %50i dagokion zigor ekonomikoa, hutsegite bakoitzeko.



- 2) Zigorak arau-hauste larriengatik: hilabeteko fakturaren %25i dagokion zigor ekonomikoa, hutsegite bakoitzeko.
- 3) Zigorak arau-hauste arinengatik: hilabeteko fakturaren %5i dagokion zigor ekonomikoa edo ohartarazpena, hutsegite bakoitzeko.

BOSen Zuzendaritzari dagokio, edo honek eskuduntza ematen dion organoari, kontratua hausteagatik zigorak ezartzea.

Esleipena duen enpresak arau-hauste larriak edo oso larriak egiten dituzenean, BOSek aukeratu egin ahal izango du kontratua haustea edo goian azalduko zigorak ezartzea.

Zigorren zenbatekoak, normalean, enpresa esleipendunari ordaindu beharreko fakturretatik kenduko dira.

Zigorrek ez dute salbuetsiko esleipena duen enpresak eskainitako zerbitzuengatik hirugarren pertsoneri edo BOSi egindako kalte-galerak ordaintzea. Zerbitzutik eratorri daitezkeen kalte ordainak ere berak ordaindu beharko ditu.

12. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLTBren 223. eta 308. artikuluetan agertzen direnak izango dira.

13. KONTRATAZIO ORGANOA.

Kontratazio organoa BOSen Presidentetza izango da.

Kontratua esleitzeko, kontratazio organoak honako kideek osatutako kontratazio batzorde baten laguntza izango du:

- BOSeko Patronatuko mahaikidea.
- BOSeko zuzendari nagusia.



- BOSeko Produkzio eta Artxibo burua.
- Idazkaria: BOSeko Patronatuko idazkaria.

14. ESLEITZEKO PROZEDURA.

Kontratu hau **prozedura ireki** bidez esleituko da, eta tokiko egunkari nagusietako bitan argitaratuko da.

Era berean, BOSen kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da lizitazioa; honako atari informatikoaren edo webgunearen bidez sartu ahal izango da bertara: www.bilbaorkestra.eus

Leku horretan bertan, pleguak eta dokumentazio osagarria (hala badagokio) egongo dira eskuragarri.

15. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak (kontratua esleitzeko oinarri gisa hartu behar dira) honakoak dira:

- a) **Formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak** 52 puntu arte
- b) **Formula bidez kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideak** 48 puntu arte

16. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK BALORATZEA.

16.1. Formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak.

Prezioa: gehienez ere, 52 puntu.

Lizitatuzaileek aleko prezioak aurkeztu beharko dituzte, kontratuaren urte bakoitzerako (plegu honetako 3.C artikulua). Prezio hori kalkulaturako zerbitzu-orduen arabera haztatuko da, urtea aintzat hartuta.

Prezioa baloratzeko, kontratuaren bi urteak gehituta lortutako zenbatekoa hartuko da kontuan; eskaintzarik merkeenari ezarritako puntu kopururik handiena emango zaio, eta gainerako eskaintzei puntuak emateko hiruko erregela alderantzizkoa erabiliko da, formula honen arabera:

$$\text{Puntuazioa} = (\text{eskaintzarik merkeena} / \text{eskaintza}) \times \text{puntuaziorik altuena}$$

Eskaintza ezohikoak edo neurritz kanpokoak: Balio ezohikotzat edo neurritz kanpokotzat hartuko dira onartutako



eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino bost (5) ehuneko-unitate baino txikiagoak diren guztizko zenbatekoak.

Balio ezohikoak edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzen kasuan, SPKLTBren 152.3 artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

Kasu guztietan, justifikazio gabekotzat joko dira balio ezohikoak edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzak; beraz, eskaintza baztertzeko arrazoia izango da aplikagarria den hitzarmen kolektibotik eratorritako langileen ordainsaria baino txikiagoa den orduko ordainsaria eskaintzea.

Prezioa baloratzeko orduan, balio ezohiko edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzak onartuko dira, baldin eta, balio horiek justifikatuta, kontratazio Organoak aldez aurretik onartu baditu.

16.2. Formula bidez kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideak.

Lizitatuzaileek zerbitzuaren eta eskura jarritako baliabideen inguruko antolakuntzari eta garapenari buruzko MEMORIA bat aurkeztuko dute. Memoria horrek honako atal hauek jasoko ditu:

- a) Egin beharreko lanaren deskribapen zehatza. Kokapen-lanen plangintza.
- b) Zerbitzuaren koordinazioa, kudeaketa eta kontrola.
- c) Zerbitzua emateak barne hartzen dituen baliabide materialak eta teknikoak.
- d) Zerbitzuari atxikitako giza baliabideak: kontratuari atxikiko zaion aretozainen lantaldearen gaitasuna, hizkuntzak eta prestakuntza.

Hauxe baloratuko da:

- 1) Gehienez ere, 20 puntu: Aurkeztutako memoriaren kalitate teknikoa, a) eta b) alderdiei dagokienez.
- 2) Gehienez ere, 4 puntu: Zerbitzuari atxikitako bitarteko material eta teknikoak.
- 3) Gehienez ere, 24 puntu: Zerbitzuari atxikitako giza bitartekoak, arreta berezia jarrita kontratuari atxikiko zaion aretozainen lantaldearen gaitasunean, esperientzian, EAEko bi hizkuntza ofizialen ezagutzan, ingelesaren eta/edo frantsesaren ezagutzan eta prestakuntzan.

Adierazitako irizpide bakoitzean, puntuazioa honako baremoaren arabera esleituko da:



- | | |
|---------------------------|--|
| - Eskaintza eskasa | Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %40ra arte |
| - Eskaintza nahikoa | Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %50era arte |
| - Eskaintza ona | Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %75era arte |
| - Eskaintza adierazgarria | Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %100era arte |

GUTXIENEO PUNTUAZIO-MAILA: SPKLTBko 150.4. artikuluekin bat etorrira, balorazio orokorrean kontuan har daitezzen, formula bidez kuantifika ezin daitezkeen irizpideetan lizitatzailerek gutxieneko puntuazio-maila lor dezaten eskatuko da, eta kontratazio-mahaiak ez ditu aintzat hartuko 24 puntutik beherako eskaintzak.

Bere betearazpenagatik edo edukiengatik kontratuaren arrazoia edo helburuak betetzeko egokiak ez diren proiektuak aurkezten dituzten eskaintzak ezingo dira onartu. Era berean, ezingo dira onartu definituta ez daudelako lanen azken emaitza ebaluatzea ahalbidetzen ez duten eskaintzak.

BOSEk eman gabe utzi ahal izango du lizitazioa, baldin eta eskaintza batek ere ez badu zerbitzua modu egokian emateko baldintzarik betetzen.

17. KONTRATATZEKO BEHARREZKO BETEKIZUNAK.

17.1. Kontratatzeke ahalmena.

Kontratatzeke prozedura honetan, ahalmen juridiko osoa eta jarduteke ahalmen osoa duten pertsona naturalek eta juridikoek parte hartu ahal izango dute, eta, orobat, ondo frogatzen badute ez daudela sartuta SPKLTBren 60.1 artikuluek ezartzen dituen kontratatzeke debekuren batean.

Era berean, kontratua beren kabuz egin ahal izango dute, edo, bestela, baimendutako pertsona baten ordezkariaren bidez, ondorio horretarako behar adina ahalorde emanek. Pertsona juridiko baten ordezkariaren kideren bat azaltzen baldin bada, ordezkariaren jarduteke ahalmena duela egiaztatu beharko du, agiriak erakutsiz. Hala kasu batean nola bestean, ordezkariak lehen aipatu diren kontratatzeke ezintasuneko arrazoen eragina jasoko du.

17.2. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioko gutxieneko eskakizunak: Azken hiru urteetan negozio-bolumen



handiena izandako urteko negozio-bolumena, gutxienez, 39.639,44 €-koa izan beharko da, hau da, kontratuaren gastuaren batez besteko urterokoaren baliokidea.

Hauxe egiaztatuko da: Negozioen urteko bolumena onartutako eta Merkataritza Erregistroan utzitako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, enpresaria aipatutako erregistroan inskribatuta baldin bada eta, horrela ez bada, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean utzitako kontuen bidez egiaztatuko da. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresariak inbentario-liburuaren eta Merkataritza Erregistroak legeztatutako urteko kontuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.

(Oharra: urteko negozio-bolumena da merkataritzako legedian ezarritako urteko kontuen araudi-ereduen galera eta irabazien kontuan jasota dagoen negozio-zifraren zenbateko garbia)

17.3. Kaudimen tekniko eta/edo profesionala.

Kaudimen tekniko eta/edo profesionaleko gutxieneko eskakizunak: Kontratu honen xede diren lanen mota bereko lanak egiten esperientzia izatea, eta azken bost urteetan lan-bolumen handiena izandako urtean egiaztatutako urtean metatutako zenbatekoa 27.747,61 €-koa edo hortik gorakoa izatea, hau da, kontratuaren gastuaren batez besteko urterokoaren %70.

Hauxe egiaztatuko da: Azken bost urteotan egindako lan edo zerbitzu nagusien zerrenda egin beharko da, eta, bertan, zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko edo pribatua adierazi beharko dira. Egindako lan edo zerbitzuak organo eskumendunak emandako edo bisatutako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira, baldin eta hartzailea sektore publikoko erakundea bada; hartzailea subjektu pribatua bada, berak emandako ziurtagiriaren bitartez, edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren aitopenearen bitartez.

17.4. Eskatutako kaudimena ordeztu dezakeen enpresa-sailkapena.

Taldea: L, Azpitaldea: 06, Kategoria: A (1. kategoria berria)

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Proposamenak BOSen egoitzan aurkeztuko dira (Euskalduna Jauregia, Abandoibarra etorbidea 4, 48011 Bilbao), **2017ko urriaren 20ko 14:00ak arte.**

Proposamena postaz bidaltzen duten lizitatuak justifikatu egin beharko dute noiz eta zein ordutan egin den



posta-bulegoan bidalketaren ezarpena, eta egun berean telefaxa edo mezu elektronikoa bidaliz jakinarazi beharko diote kontratazio-organoari eskaintza igorri dela.

Bi betekizunak gertatu ezean, dokumentazioa ez da onartuko ezarririko epea amaitzen den egun eta orduaren ondoren jasotzen baldin bada. Hala ere, data horren ondoren hamar egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, hura inola ere ez da onartuko.

Proposamena entregatuta eta onartuta dagoenean, lizitazioa egin duen enpresak ezingo du berriro hartu, justifikatutako arrazoirik ez badago. Beste eskaintzarik ere ezingo du aurkeztu, ez berak bakarrik ez beste enpresa batzuekin aldi baterako enpresa bat osatuta. Ezingo du Aldi Baterako Enpresen Elkarte batean baino gehiagotan agertu. Aipatutakoa bete ezean, baztertu egingo dira enpresa horrek aurkeztutako proposamen guztiak.

Lizitatuzaileek itxitako hiru gutun-azal aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C), eta, gutun-azal bakoitzean, honakoa egongo da idatzita: **"BOSentzako KOKAPEN-ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"** .

Gutun-azal guztiek egon beharko dute kanpoan identifikatuta honako datuekin:

GUTUN-AZALA:
BOSentzako KOKAPEN-ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

Enpresaren izena:
Helbide soziala:
Helbide elektronikoa:
Harremanetarako telefonoa:
Faxa:
Ahaldunaren izen-abizenak:
Ahaldunaren sinadura:

A gutun-azalaren azpiztitulua **"ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA"** izango da.

Honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:



- Erantzukizunpeko adierazpena, 3. eranskinean jasotako ereduarekin bat etorriz.

“B” gutun-azalaren azpigitulua **“FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”** izango da.

Eskaintza ekonomikoa izango du, 2. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Honelako proposamenak ez dira onartuko:

- BOSek eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ezagutzea galarazten duten kontraesanak, omisioak, errakuntzak edo ezabaketak dituztenak.
- Aztertu edo onartu den dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- Lizitazioaren gehienezko tasa gainditzen dutenak.
- Proposamenaren zenbatekoan ageriko errakuntzak dituztenak.
- Ezarritako proposamen-eredua funtsezko eran aldatu dutenak.
- Lizitatuak onartzen duenean proposamena ezin dela bideragarria izan, errakuntzak edo funsgabetasunak daudelako.

Letretan eta zenbakietan adieraziriko eskaintzak bat ez datozenean, letretan ematen dena gailenduko da, salbu eta, agiriak aztertzearen ondorioz beste irizpide arrazional batzuk erabiliz, Kontratazio Batzordeak beste jarrera bat hartzen badu.

Jakinarazten da eskaintza ekonomikoaren kontu-errakuntzek hura zuzentzea eragingo dutela.

Eskaintzak baztertzea eragiteko modukoak ez diren kontraesanak edo errakuntzak egonez gero, Kontratazio Batzordeak irizpide arrazionalen arabera jarrera hartuko du, BOSentzat abantailatsuen dena, betiere.

“C” gutun-azalaren azpigitulua **“FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”** izango da.

Plegu honen 16.2 puntuan adierazitako memoria izango du.

19. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA KONTRATAZIO-MAHAIAREN JARDUERA.

Eskaintzak balioztatzeko eskumena duen organoa kontratazio-mahaia da. Batzordearen ekitaldi publikoak BOSen egoitzan egingo dira. Lizitatzailleek ekitaldietarako deia jasoko dute e-mail bidez.

“A” gutun-azala irekitzea

Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean, Batzordeak (saio pribatuan) “A” gutun-azala irekiko du. Inolako akatsik aurkitzen badu, hiru laneguneko epea eskainiko du, lizitatzailleak akatsa zuzendu dezan.

“C” gutun-azala irekitzea

Ekitaldi publikoan, “FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA jasotzen duen “C” GUTUN-AZALA irekiko da; gutun-azal hori onartutako lizitatzaillei dagokie.

Ondoren, Batzordeak proposamenak baloratuko ditu, formulaz ezin kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideei dagokienez.

“B” gutun-azala irekitzea

Formula bidez kuantifika ezin daitezkeen irizpideak baloratu ondoren, Batzordeak, ekitaldi publiko batean, irizpide horiei dagokienez eskaintza ekonomiko bakoitzari esleitutako puntuazioak jakinaraziko ditu.

Jarraian, onartutako proposamenen “B” GUTUN-AZALA: FORMULAZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA irekiko da, eta haien barruko eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

Esleitzeko proposamena.

Batzordeak esleitzeko proposamena egingo dio kontratazio-organismoari, behin eskaintzen ebaluazio orokorra egin eta gero.

20. ESLEIPENA.

Kontratazio organoak, beheranzko ordenan, baldintza-orri hauen karatulan adierazitakoaren arabera neurrigabeak edo anormalak diren aurkeztutako proposizioak sailkatuko ditu.

Kontratazio-organismoak ekonomiaren aldetik eskaintza onuragarriena egin duen lizitatzaileri eskea egingo dio,

hamar egun baliouduneko epean, eskea jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, beherago azaltzen den dokumentazioa aurkez dezan:

- a) Kontratazioa egiteko legez eskatutako baldintzak justifikatzen dituen dokumentazio administratiboa:
- Pertsona fisikoa: Proposamena egiten duen pertsonaren NANA edo hura ordeztzeko agiri fedemailea.
 - Pertsona juridikoa: eraketako eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrerako egintza; haietan jarduera zehazten duten arauak ageri direla eta, hala dagokionean, erregistro ofizial egokian inskribatuta.
 - Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak: Beste pertsona baten izenean bertaratzen edo sinatzen dutenek ahalmen nahikoa erakutsi beharko dute, ondorio horretarako.
 - Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa edo gaitasun tekniko edo profesionala edo, hala badagokio, enpresa-sailkapena egiaztatzen duten agiriak.

Eskakizunen konkurrentzia aztertzeko unerik egokiena proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan izango da.

- b) Behin betiko bermea

Bermea emateko erak: Bermea SPKLTBko 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan eman ahal izango da.

BOSek eskubidea izango du abalen sinaduraren legitimazioa eskatzeko.

Enpresaburuen aldi baterako elkarteei dagokienez, partaidetza duten enpresen sozietate-izenak eta IFZak zehaztu beharko dituzte. Halaber, partaidetza dutenen artean, enpresa batek edo gehiagok eratu ahalko dituzte bermeak, baldin eta eskatzen den zenbateko guztia batzen bada eta aldi baterako elkarteko kide guztiak solidarioki bermatzen badira.

- c) Zerga betebeharrak beteta dituela esaten duen baiezkotako ziurtagiria foru ogasuneko bulegoek emana edo, haren ordeztzeko, Zergen Administrazioarako Estatuko Agentziak emandakoa.
- d) Ziurtagiri positiboa Gizarte Segurantzarekiko betebeharren aldetik egunean egotea egiaztatzeko edo, bestela, dagokion mutuakoa alta.

- e) Esleipenduna enpresaburuaren aldi baterako elkartea bada, elkarre horren formalizazioaren eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Era berean, elkarteko kide bakoitzak foru-ogasun(ar)en nahiz Gizarte Segurantzaren ziurtagiri positiboa aurkeztuko du, bai eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergari dagozkion agiriak ere.
- f) Kontratu honen xedea den jarduera gauzatzen duten langileei aplikagarria zaien hitzarmen kolektiboa.
- g) Kontratutako zerbitzuak gauzatzetik sortutako kontratu-erantzukizunak eta erantzukizun zibilak estaltzeko asmoz kontratatutako aseguru-polizaren kopia.

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo bost egun baliodunen barruan esleitu beharko du kontratua. Kontratazio-organoak ebazpen arrazoitu baten bidez erabakiko du esleipena.

Lizitatzailer guztiei emango zaie esleipenaren berri, eta BOSen kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

21. FORMALIZAZIOA.

Kontratua formalizazioarekin gauzatuko da.

Kontratua lizitazioaren baldintzekin zehatz-mehatz bat datorren agiri batean formalizatu beharko da, eta agiri hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartu ahal izateko. Alabaina, kontratistak eskatu ahal du kontratua eskritura publikoan jaso dadila; haren konturakoak izango dira horren gastuak.

Ezingo da inola ere sartu kontratua formalizatzeko agirian esleipenaren baldintzak aldatzen dituen klausularik.

Kontratistari leporatu dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua formalizatu ezean, BOSek kontratua suntsitzea erabaki ahal izango du, kalte-ordainen ordainketa eskatuz, betiere, interesdunari entzun ondoren.

Kontratuaren betearazpena ez da hasiko aurretik formalizatu gabe, txostenaren tramitazioaren izaera presazkoa edo larrialdikoa ez baldin bada behintzat.

22. KONTRATUA ALDATZEA.

Behin kontratua hobetu eta gero, kontratazio organoak interes publikoko arrazoiak daudelako edo ustekabeak gainditzeko aldatu ahal izango du kontratua. Horretarako, hauen beharrezan behar den moduan justifikatu beharko du txostenean.

Kontratua kasu hauetan aldatu ahal izango da:

- Kontratuarekin bete behar diren beharrezan egoki gogobetetzeko asmoz, lurralde esparrua edo ekintza eremua zabaltzea eragingo duten helburu berriei erantzuteko.
- Aurreikusitako zerbitzu-orduek gora egiten dutenean. (Kontraturako giza baliabideak gehitzea, aurreikusitako kontzertu/ekitaldi kopurua handitzea, etab.)

Aldaketa horiek kontratuaren prezioaren %20an gehienez izan dezakete eragina.

Aldaketa horiek ezingo diete eragin kontratuaren oinarritzko baldintzei. SPKLTBren 305. artikulua dioenari men egingo zaio bereziki.

23. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA.

Plegu honen oinarriaren gainean egiten den kontratuak izaera pribatua izango du.

Prestaketa eta esleipenari dagokienez, kontratua plegu honetan idatzitako klausulen arabera gidatuko da, edo, bestela, hauen bidez:

-Kontrataziorako BOSen barne-jarraibideak.

-SPKLTBn horretarako ezarritako arauak.

-Hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan (hemendik aurrera, 817/2009 ED) ezarritako arauen arabera gidatuko da, botere esleitzaila duten eta administrazio publikoa ez diren sektore publikoko erakundeek adostutako eta araudi harmonizaturik ez duten kontratuen kasuan.

-Betiere, SPKLTBn aurreikusitakoarekin bat datorrenean, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuari jarraiki.



Bere eraginei eta ebazpenari dagokienez, kontratua plegu honetan idatzitako klausulen eta bertako eskubide pribatuko arauen arabera gidatuko da.

Horrez gain, SPKLTB, 817/2009 ED eta 1098/2001 Errege Dekretua aplikagarriak izango dira, baldintza-giri honek aipatutako araudi testuei erreferentzia egiten dien guztian.

Ordena jurisdikzional zibilak aldean artean sor daitezkeen liskarrak ebazteko eskumena izango du, kontratu pribatuen efektu, betearazpen eta iraungipenari dagokienez. Ordena jurisdikzionalak eskumena izango du kontratu honen prestaketari eta esleipenari eragiten dieten auzien berri izateko.

Hala ere, alderdiek beraien auziak arbitrajearen pean jartzea adostu dezakete, indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat etorriz.

Bilbo, 2017ko irailaren 25a

1. ERANSKINA

ZEHAZTASUN TEKNIKOAK.

1.- **DESKRIBAPEN OROKORRA.**

Espezifikazio hauen helburua da BOSen kontzertu/jardueretara doazen guztientzako kokapen zerbitzua kontratatzeko beharrezkoak diren ezaugarri teknikoak zehaztea

2.- **EDUKIA.**

Kontratu honen helburua da instalazioak ireki eta ixtea eta bezeroek edo erabiltzaileek instalazioen erabilera egokia egiten dutela ikuskatzea eta egiaztatzea; baita hauek behar dituzten arreta eta informazioa eskaintzea ere.

Esleipendunaren egitekoak hauek izango dira zehazki:

- Esleitutako lanpostuan kokatzea, aretoa berrikustea eta aretoko koordinatzaileari ohartaraztea ikus-entzuleentzako ateak irekitzea saihestu dezaketen aretoko garbiketa eta mantentze hutsunez.
- Aretoa berrikustea, ikuskizun bakoitza hasi aurretik eta amaitu ondoren.
- Instalaziora eta aretora sartzeko ateak ireki eta ixtea, atsedendaldietan eta ikuskizunen hasieran eta amaieran.
- Auditoriumerako sarrerak kontrolatzea, sartzen direnek sartzeko balio duen sarrera-txartela daramatela frogatuz.
- Ikusleak euren lekuan kokatzea eta, behar dutenean, bertaraino laguntzea.
- Arropak gordetzeko zerbitzua eskaintzea, beharrezkoa denean.
- BOSek antolatzen dituen balizko gertakarietan (harrerak, ekitaldiak...) aurreko puntuetan azaldutako zeregin berberak betetzea.
- Ikusleenganako arreta orokorra, informazio eskaerei, galderei eta bestelako beharrezkoen erantzunez.
- Publizitate eta informazio materiala euskarri ezberdinetan kokatzea (esku-egitarauak, aldizkariak, buletinak, panel autosostengatuak, etab.).
- BOSek aretoko koordinatzaileari agindutako arauak eta jarraibideak errespetatzea.
- Pertsonen zein ondasunen segurtasuna arriskuan jarriko duen edozein ezbeharren berri ematea, berehala,



BOSEko eta PEJko arduradunei.

- Ekitaldietara doazen parte-hartzaileak artatzea, beharrezkoa duten informazioa ematea, publizitate materiala ematea, ura eta edalontziak jartzea eta kentzea, eta mota horretako beste edozein lan.
- Aretoaren balizko hustuketetan ordena-indarrekin, suhiltzaile zerbitzuarekin, Gurutze Gorriarekin, DYArekin, etab. elkarlanean aritzea. Auditoriumean edo zerbitzua eskaintzen den aretoetan larrialdi edo gertakariren bat izanez gero, BOSi eta PEJri momentuan esatea, eta Ertzaintzari, Gurutze Gorriari, suhiltzaileei edo dagokionari abisua ematea.
- BOSEk agindu dezakeen kontratatutakoen antzeko beste edozein lan.

3.- ARETOKO KOORDINATZAILEA.

Enpresa esleipendunak pertsona bat izendatuko du aretoko koordinatzaile, eta berak jasoko ditu BOSen jarraibideak, ondoren, gainerako kokapen zerbitzuko langileei helarazteko. **Aretoko koordinatzailearen kostua esleipendunaren kargura izango da.**

Aretoko koordinatzailea aretoan bertan egongo da kontzerturako zerbitzuak irauten duen bitartean, eta **derrigorrezkoa izango da denboraldi sinfonikoko kontzertu guztietan han egotea, bai eta PEJko auditoriuma zabaltzen den guztietan ere.** Gainerako kontzertuetan, bere funtzioak kokapen zerbitzuko kideetako batek hartuko ditu bere gain.

Ondoren aipatzen direnak izango dira aretoko koordinatzailearen ardura:

- Kokapen zerbitzuko langileek egiten dituzten lanak koordinatu eta berrikustea.
- Eskatutako langile ororen presentzia kontrolatzea.
- Ikus-entzuleei dagokien jazoera edota larrialdi oro artatzea, eta dagozkion instantziei desbideratzea: Euskaldunako Kontrola, erreklamazio liburua, etab.
- Publikoaren erreklamazioak eta iradokizunak artatzea.
- BOSen langile artistiko edo teknikoarekin koordinatzea ikuskizunaren hasieran eta amaieran atea noiz itxi edo zabaldu.
- Gertakarien kudeaketa: Zerbitzuak dirauen bitartean sortutako jazoerak jasotzen dituen txostena igortzea.

4.- KOKAPENENKO LANTALDEA.

Kokapen zerbitzuko ohiko taldea, kontzertu/jardueren tipologiaren arabera, hurrengoa izango da:

Kontzertu/Jarduera-mota	Lekua	Langile kopurua
Denboraldi sinfonikoko kontzertua	PEJ: Auditoriuma	14 aretozain + koordinatzaile 1
Ganbera denboraldiko kontzertua	PEJ: A1 aretoa - Antzokia	4 aretozain
Kontzertu didaktikoa	Bilboko kontserbatorioa	4 aretozain
Kontzertua familian	PEJ: Auditoriuma	14 aretozain + koordinatzaile 1
Kontzertua familian/haurrentzat	PEJ: A1 aretoa - Antzokia	4 aretozain
Solasaldi-berbaldiak	PEJ	2 aretozain
Ezohiko kontzertua	PEJ: Auditoriuma	18 aretozain + koordinatzaile 1
Ezohiko kontzertua	PEJ: A1 aretoa - Antzokia	5 aretozain
Umeentzako tailerrak	PEJ	2 aretozain

Gutxi gorabehera (kontrakoa adierazi ezean), 4 orduko gutxieneko zerbitzua ezarriko da, kontzertu/jarduera bakoitzeko eta pertsona bakoitzeko.

5.- HEDAPENA.

Zerbitzua honela eskainiko da:

- BOSek gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin esango dio esleipendunari langileek zein beharizan dituzten.
- Zerbitzuaren jardunaldiak eta ordutegiak BOSen egitarauaren menpe egongo dira, eta BOSek izendatzen duen zerbitzuaren arduradunak berrikusiko ditu.
- Gauzatutako jardueraren ondorioz, zerbitzuaren jardunaldiak eta ordutegiak aldatu egin daitezke, zenbait kontzertu/ikuskitun/ekitaldiren ezaugarri teknikoak direla-eta, azken orduko aldaketak direla-eta, egitaraua aldatzeagatik, etab. Horregatik, bada, kokapen zerbitzuko langileen sarrera eta irteera orduak aldatu egin ahal



izango dira, BOSen beharrianetara egokitzeko.

- Bestelakorik esaten ez denean, estali behar duten emankizuna edo ekitaldia hasi baino 90 minutu lehenago joan behar dute BOSen instalazioetara langileek; eta entzuleak lokaletik atera, eta zerbitzua betetzeko zereginak egiten dituztenean amaituko da euren lana. Dena dela, BOSek eskatu ahal izango du zerbitzua 90 minutu horiek baino lehen hastea edo entzuleak atera aurretik amaitzea, egiazko beharrianen arabera.
- Era berean, BOSek eskubidea izango du zerbitzua beste egoitza batzuetara ere zabaltzeko, plegu honetan kontratatu diren modu eta forma berean.

6.- LARRIALDIAK.

Esleipena duen enpresak larrialdietarako dei zerbitzua izango du, eta uneoro izango da BOSekin harremanetan.

Enpresari dagozkion larrialdien edo antzeko beste arrazoi batzuen ondorioz esleipendunak pentsatzen badu ezingo duela zerbitzua ezarritako baldintzetan eskaini, derrigortuta egongo da BOSi berehala jakinaraztera, horrek behar diren neurriak hartu ditzan, erabaki horrek eragin ditzakeen kalteak saihesteko edo gutxitzeko. Neurri horiek eragindako gastuak esleipendunak ordainduko ditu, izan ditzaketen zigorretan edo beherapenetan inolako aldaketarik eragin gabe.

Baldintza hauetakoren batean esleipendunak hartzen baditu kalteak saihesteko neurriak, ez da zigorrik izango eta egin gabeko lanei dagokien diru-kopurua baino ez da kenduko ordaindu beharrekotik.

7.- LANGILEEI DAGOZKIENAK.

-Esleipendunari dagokio egunero egin beharreko lana zuzentzea zein antolatzea. Horretarako, zuzeneko eskulaneko eta kategoria profesional egokiko langileak edukiko ditu, baita talde edo lantalde horiek gainbegiratu dituzten langileak ere; azken horiek emandako zerbitzuaren azken emaitza kontrolatu, eta horren jarraipena eta beren ardurapeko langileen tutorizazioa egingo dute.

-Kontratuan agertzen den zerbitzua eskaintzen duten langile guztiak izango dira esleipena duen enpresakoak, eta aipatutako langile horien eta BOSen artean ez da inolako harreman juridikorik izango,



ez kontratua indarrean dagoen denboran, ez gero.

- Esleipena duen enpresak langile guztiak izan beharko ditu Gizarte Segurantzaren behar den moduan aseguratuta.
- BOSen instalazioetan zerbitzua ematen duten langileen Gizarte Segurantzako altari buruzko dokumentazioa igorri beharko du esleipendunak ekintza/jarduera bakoitzeko.
- ENPRESAREN SUBROGAZIOA: esleipena duen enpresak oraingo kontrata zerbitzuak dituen eskubide eta betebeharrak mantendu beharko dizkie langileei, indarrean dagoen legearen arabera, eta indarrean dagoen sektoreko lan hitzarmenak dioena errespetatuz.
- Kontratako langileen alden eta baje jakinaren gainean egon beharko du BOSek. Horretarako, hauen egiaztagirien kopia bidaliko zaizkio fax bidez.
- Azaldutako zerbitzuak eskaintzen dituzten langile guztiak egon beharko dute identifikatuta, eta esleipena duen enpresaren ardura izango da langileei uniformeak jartzea zerbitzua betetzen ari diren orduetan. Enpresak emandako identifikaziorako txartela ere izan beharko dute ikusteko lekuan jarrita.
- Esleipenduna izango da langileen txukuntasun ezaren eta jantzien errespetu eta uniformetasun ezaren erantzulea, bai eta laguntzako langile horrek BOSeko langileekin edo gainerako publikoarekin duen deskortesia edo tratu txarraren erantzulea ere.
- LANGILEEN ALDAKETA: esleipena duen enpresak konpromisoa hartzen du albo batean uzteko euren lana behar den zuzentasunarekin, gaitasun teknikoarekin eta eraginkortasunarekin egiten ez duten langileak edo lanean arreta gutxi jartzen dutenak.
- ZERBITZUEN IKUSKARITZA: zerbitzuak esleipena duen enpresak ikuskatuko ditu hilean behin gutxienez. Ikuskaritza hori idatziz jaso beharko dute, eta BOSek izendatzen duen ordezkariari eman beharko diote kopia bat.



- GREBA: grebarik balego, esleipena duen enpresak gutxieneko zerbitzuak bermatu beharko lituzke, eta hauek indarrean dagoen araudiaren arabera negoziatu beharko ditu, zeintzuk diren erabaki aurretik. Greba sasoietan, adostutako gutxieneko zerbitzuei dagokien dirua bakarrik ordainduko da.
- KALTEEN ORDAINA: Esleipena duen enpresako langileek egoitzan, altzarietan, instalazioetan edo BOSen zein Auditoriumarenak diren bestelako jabetzetan arduragabekeriaz, eraginkortasun faltaz edo atzipenez egiten dituzten kalteak esleipena duen enpresak ordainduko ditu.

8.- LANGILEEN AUKERAKETA.

Esleipena duen enpresak ezaugarri hauek dituzten profesionalak kontratatu beharko ditu lan hauetarako:

- Prestakuntza psikologiko eta heldutasun egokia. Batez ere, PEJen garatu daitezkeen gertakari motak ezagunak izan beharko zaizkio bereziki.
- Pertsonetik harremanei, lehen laguntzari, larrialdiko uneetako hustuketei, eta, orokorrean, berak egin beharreko funtzioen garapenari dagozkion trebakuntza osagarri guztiei, dagozkien gaietan trebakuntza teorikoa eta praktikoa izan beharko ditu.
- Kokapen zerbitzuan lan egingo duten langileek mediku azterketak egin beharko dituzte lanean hasi aurretik eta urtean behin gutxienez, esleipena duen enpresaren kontura.
- EUSKARA: esleipena duen enpresak konpromisoa hartzen du langileek aipatutako zereginak betetzeko behar duten besteko euskara maila izango dutela ziurtatzeko. Gutxienez B2 maila edo horren baliokideren bat aipatzen da erreferentzia orokor gisa.
- BESTE HIZKUNTZA BATZUK: esleipena duen enpresa saiatu egingo da, kokapen zerbitzuan ari diren langileen %50 gutxienez, ingelesez edo frantsesez egoki aritu dadin.

9.- KOKAPEN ZERBITZUAREN GARAPENA.

Zerbitzua ekintzarako honako irizpideen arabera garatuko da:

- Esleipendunak BOSen arduradunari jakinaraziko dizkio langileen datuak, lanean hasi aurretik. (izena, NAN, adina, helbidea, zerbitzu-historia, jasotako prestakuntza).



- Langile berriek lanean hasi orduko aurreko bi egunetan gutxienez**, ordezkatu duten langilearen postuan **agertu beharko dute**; izan ere, zerbitzua eskainiko duten langileek PEJen eta BOSen instalazioak eta BOSeko zein PEJko langileak ezagutu behar dituzte, euren lana eraginkortasunez betetzeko.
- Kokapen zerbitzuko lanetarako lantaldeko edozein langile ordezkatu aurretik, esleipena duen enpresak idatzizko baimena eskatuko du, ordezkapena egingo duenaren curriculum-vitaea atxikita. BOSek dagokion baimena eman arte, ez da ordezkapenik egingo.
- Esleipena duen enpresak hileru aurkeztu beharko ditu, BOSen ordezkariaren aurrean, hilabete horretan izandako jazoeren laburpena, zerbitzua hobetzeko asmoz langileek egindako oharrak eta zerbitzua egin duten langileen zerrenda.
- Esleipena duen enpresa behartuta dago 24 orduko aurrerapenarekin eskatzen zaizkion ezohiko zerbitzu guztiak zein hauen luzapenak egitera.

10.- GENERO IKUSPEGIA.

Enpresa lizitatzailerak, euren proposamenak egin eta aurkezten dituzten unean, hizkera ez-sexista erabili beharko dute. Era berean, enpresa esleipendunak, kontratuak indarrean dirauen bitartean, hizkera ez-sexista erabili beharko du behin betiko edozein idazki edo dokumentu digitaletan. Halaber, sexuaren arabera datuak bereizi beharko ditu sortzen den edozein estatistikatan. Hori guztiori, Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikulua babesean; aipatutako Legean jasotzen dira errespetatu beharreko oinarriko printzipioak.

Kontratu honen xede den zerbitzua eman ondorengoko amaierako justifikazioak kontratazioak izandako genero-eraginari buruzko memoria jaso beharko du, erabiltzaile edo onuradunen zein zerbitzua ematen duten langileen datuak eta adierazleak sexuaren arabera bereizita, aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko.

11.- ASEGURUA.

Enpresa kontratistak bere izenean izan beharko du ezbeharretarako aseguru poliza bat kontratuak indarrean dirauen bitartean, gutxienez, **300.000 euroko** zenbatekoan, kontratatutako zerbitzuak gauzatzetik sortzen



zaizkion kontratu erantzukizunak eta erantzukizun zibilak betetzeko.

2. ERANSKINA

ESKAINITZA EKONOMIKOAREN EREDUA.

Nik, jaunak/andreak, helbidea, PK, telefonoa eta NAN ditudanak, nire ahalmen juridiko eta jarduteko ahalmen osoa izanik, eta nire izenean jardunez (edo honen ordezkaritzan:,helbidea, PK, telefonoa eta NAN edo IFZ -pertsona fisikoa edo juridikoa-), BOSerako KOKAPEN ZERBITZUA kontratatzeko zabaldu den lizitazioaren jakinaren gainean,

HAUXE ADIERAZTEN DUT NEURE ARDURAPEAN:

1) Hitz ematen dut zerbitzu hau burutuko dudala, eta aleko prezioa hau izango dela:

	Aretozaina, orduak (BEZ gabe)	Aurreikusit ako orduak urtean	Kontratuaren urteko gastua (BEZ gabe)
Lehenengo urtea		2.564	
Bigarren urtea		2.564	
		GUZTIRA	

2.-) Prezio horrek kontzeptu guztiak barruan hartzen dituela ulertzen da, edozein zerga-mailatako zergak, gastuak, tasak eta arielak, eta kontratistaren industria-onura barne.

....., 2017ko,aren(a)

Iz:

Enpresaren zigilua

3. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENERAKO EREDUA.

Nik, jaunak/andreak (NAN zk:), neure izenean edo enpresaren ordezkari legez (helbidea:; eta IFZ zk:), ,

ERANTZUKIZUNPEKO HONAKO ADIERAZPENA EGITEN DUT:

- 1) Nik edo nik ordezkatzeko dudanak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikularekin bat etorriz, ez daukagu kontratatze inolako debekurik. Berariaz ulertzen dugu inguruabarren adierazpen honetan indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta ditugula. Ezaugarri horiek justifikatzeko egiaztagiriak kontratua formalizatu aurretik aurkezteko konpromisoa hartzen dut, esleipena nire izenean egiten bada.
- 2) Eskaintza ingurumen, gizarte eta lan alorrean aplikagarriak diren obligazioak kontuan hartuta osatu da, Europar Batasunaren zuzenbidean, zuzenbide nazionalen eta hitzarmen kolektiboetan, baita ingurumen, gizarte eta lan alorrean Estatua lotzen duten nazioarteko zuzenbideko xedapenetan jasotakoaren arabera, eta kontratu honen betearazpenean parte hartzen duten langileei aplikagarriak zaizkien lan-eskubideak bermatzen ditu.
- 3) Esleipendunak izatekotan, betearazpeneko baldintza berezi gisa, aplikagarria den hitzarmena jakinaraziko zaie kontratuaren xedea den jarduera gauzatzen duten langileei; era berean, kontratua esleitu ondoren langile horiei aplikatu zaizkien lan-baldintzei buruzko behar besteko informazioa emango da.
- 4) Esleipendun izatekotan, kontratua betearaziko duten langileei indarrean dagoen eta kontratu hau arautzen duen azken hitzarmen kolektiboak (enpresakoa, sektorekoa edo lurraldekoa, dagokionaren arabera) ezarritako baldintzak aplikatzeko obligazioa izango dugu, betearazpeneko baldintza berezi gisa; hori ez da eragozpena izango hitzarmen horretan xedatutakoaren gaineko hobekuntzak egiteko. Hain zuzen ere, aplikagarria den hitzarmen kolektiboan jasotako ordainsaria ordainduko da, langile bakoitzari dagokion sailkapen profesionalaren arabera, eta ordainsaria ezingo da hori baino txikiagoa izan kontratua esleitu ondoren.

- 5) Esleipendun izatekotan, betearazpeneko baldintza berezizat hartuko dugu gure gain enpresako plantillako langileen %2, gutxienez, desgaitasuna duten pertsonak izatea, baldin eta enpresak 50 langile edo gehiago baditu, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta horien gizarte-inklusioari buruzko Lege Orokorren testu bateginaren 42. artikularekin bat etorritik, edo, bestela, apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan ezarritako ordezkotako neurriak hartzea. Era berean, konpromisoa hartzen dugu aipatutako obligazioa betetzen dugula egiaztatzeko BOSen aurrean, azken horrek hala eskatzen duenean, kontratua indarrean dagoen edozein unetan edo, kasu guztietan, azken faktura igorri baino lehen.
- 6) Esleipendun izatekotan, gure gain hartuko dugu, betearazpeneko baldintza berezi gisa, ekoizpen-kate osoan oinarritako lan-eskubideak errespetatu eta Laneko Nazioarteko Erakundearen oinarritako hitzarmenak betetzeko obligazioa, bereziki, honako hauek:
- 29. eta 105. hitzarmenak, lan behartua desagerrarazteari buruzkoak.
 - 87. eta 98. hitzarmenak, sindikatu, elkarte eta negoziazio kolektiborako askatasunari buruzkoak.
 - 100. hitzarmena, balio bereko lanaren truke, gizonezko langileen eta emakumezko langileen arteko ordainsarien berdintasunari buruzkoa.
 - 111. hitzarmena, arraza, kolorea, sexua, erlijioa, iritzi publikoa, jaioterria edo gizarte-jatorria direla-eta, enplegua eskuratzeko eta lan-baldintzetan diskriminaziorik ez jasotzeari buruzkoa.
 - 138. hitzarmena, haurren esplotazioa eta lana abolitzeari buruzkoa.
 - 182. hitzarmena, haur-lana debekatzeari eta hori desagerrarazteko berehalako ekintzari buruzkoa.

....., 2017koaren(a)

Iz.: